

KOSTU EGITURA

Proiektua aurrera eramateko, hainbat kostu zuzen eta zeharkako, finko eta aldagarri hartu behar dira kontuan.

1. Kostu finkoak

Kostu finkoak dira erabiltzaile kopuruaren arabera aldatzen ez diren gastuak.

Aplikazioaren garapena eta mantentzea: informatikan adituak diren pertsonak kontratatzea (programatzaileak, aplikazioaren eguneraketak eta akatsen konponketa).

Zerbitzariak eta hodeiko azpiegitura (hosting): aplikazioa funtzionamenduan egon dadin beharrezkoa.

Datu-baseen kudeaketa eta segurtasuna: erabiltzaileen informazioa modu seguruan gordetzeko.

Lizentziak eta software-tresnak: garapenerako beharrezkoak diren programak.

Administrazio-kostuak: ordainketen kudeaketa (VIP harpidetzak), plataformen komisioak (App Store / Play Store).

2. Kostu aldagarriak

Kostu hauek aplikazioaren erabileraren arabera handitu edo txikitu daitezke.

Zerbitzari-kontsumoa: erabiltzaile gehiago egon ahala, datu-kontsumoa handitzen da.

Bezeroarentzako laguntza: erabiltzaile kopurua handitzean, arreta-kostuak ere handitzen dira.

Edukien garapena: kontzentrazio-teknikak, planifikazio-metodoak, erlaxazio-ariketak edo azalpen berriak sortzea.

Marketina eta publizitatea: aplikazioa ezagutarazteko kanpainak (erabiltzaile gehiago lortzeko).

3. Hasierako inbertsioa

Proiektuak hasieran inbertsio ekonomiko garrantzitsua eskatzen du, batez ere, aplikazioaren lehen bertsioa sortzea, oinarritzko eduki pedagogiko eta laguntza-zerbitzuak garatzea, azpiegitura teknologikoa martxan jartzea, inbertsio hori beharrezkoa da aplikazioak kalitate handiko zerbitzua eskaini ahal izateko.

4. Eskala-ekonomiak

Aplikazio digitala denez, erabiltzaile kopurua handitzen den heinean: erabiltzaile bakoitzeko kostua txikiagoa da, irabazi-marjina handitzen da, batez ere VIP harpidetzen bidez (3,99 €/hilean edo 10,99 €/hiru hilabetero).

5. Negozio-eredua eta kalitatea

Gure negozio-eredua ez da prezio baxuetan soilik oinarritzen, baizik eta kalitate handiko zerbitzuan (ikasketa-laguntza + osasun mentala), erabiltzailearen ongizatea lehenesten duen aplikazioan, balio erantsia eskaintzen duen VIP zerbitzuan.